

heroina

ailaket!!

konposizioa, itxura eta aizunketa

01



heroina

zaldia, jakoa...

Diacetilmorfina edo heroina substantzia erdisintetiko da. Opiazeo bat da; opiotik morfina ateratzen da eta haren azetilaziotik abiatuta lortzen da heroina.

Hauts zuri edo marroi itxura du, jatorriaren arabera.




Aizunketa handiena izan ohi duen substantzia da, normalean kafeinarekin eta parasetamolarekin nahastea da eta, neurri txikiagoan, beste substantzia batzuk ere ager daitezke, hala nola kaltzio sulfatoa, kaltzio karbonatoa eta azido borikoa. Laginez batez besteko purutasun-maila % 11koa da.

dosia zenbatekoa den eta nola hartzen den

02

Atsegin hartzeko guneetan heroina hartzeko modurik ohikoena erretzea edo sudurretik (esnifatura) hartzea da. Batez besteko dosia 15 mg dira eta sekula ez luke izan behar 250 mg baino handiagoa, heriotza eragin bailieziaieke tolerantziarik ez duten pertsoneri.



Zainetik sartzea, duela urte batzuk hain hedatua zegoena, egonkortsu egin da, nahiz eta ez den ohikoa aisia-guneetan.



hasierako ondorioak

03

01

Heroinaren ondorioak ez dira beti berdinak. Hainbat alderdik du eragina: zenbateko dosia hartzen den, non-nola hartzen den, aldarre onean edo txarrean egon bitartean hartzen den, zer espero den eta pertsona nolakoa den.

03

Hartu ondoren, eta dosi txiki batekin, euforia eta ondorio analgesikoa eragiten ditu berehala, lasaitasuna eta ongizatea sentituz, eta aldi berean, nerbio-sistema zentralaren depresioa eragiten du, pultsua eta arnas-erritmoa mantsotuz.

04

Kontsumoak goitikakoak eta sabeleko minak eragiten ohi ditu, batez ere tolerantzia txikia duten pertsoneri.

02

Nerbio-sistema zentralaren depresioa da heroina, eta propietate analgesikoak ditu. Erreta edo sudurretik sartuta hartuz gero, minutu gutxirean buruan nabaritzen dira haren ondorioak.

06



05

Dosi ertainetik handira igaroz gero, ameskizun-egoera etengabe batetik aldizkako amets-egoera batera pasatzen da.

06

Fisikoki, bero-sentsazioa, azkura arinak eta txizagura (txiza egiteko nolabaiteko ezintasuna izan arren) eragiten ditu. Halaber, begi-niniak nabarmen uzkurrazten ditu.

ondoriak epe ertain eta luzera

04

01

Ohiko kontsumoetan, albo-ondorioek organismoaren defentsak murrizten dituzte eta desdoidze hormonalak eragiten dute, zeinaren ondorioz gerta baitaitezke: pisua nabarmen galtzea, osteoporosia garatzea, libidoa txikiagotzea edota hilerokoaren zikloa aldatzea.

02

Arlo psikologikoan, ohikoak dira depresio- eta antsietate-arazoak, eta, orobat, nortasun-nahasmenduak. Gaixotasun horiek, substantziari berari baino, adikzio-prozesuari daude lotuago.

03

Denbora gutxian zehar egunero hartzeak mendekotasun fisikoa eragiten du, eta hala agertzen da abstinentzia-sindromea: goragaleak, goitikakoak, zorabioak, dardarak, antsietatea... Kontsumoa etetean gertatzen da hori, eta egunak edo asteak iraun ditzake, mendetasun-mailaren arabera.


nahastearen ondorioak

05

Alkoholarekin batera hartuz gero, goragaleak areagotu egiten dira eta litekeena da goitika egitea. Horrez gain, biak ala biak depresioak direnez, ondorio hori indartu egiten da bizi-funtzioetan.



Estimulatuzaileekin batera hartuta, euforia-puntu bat lortzen da, eta horrek ondorio lasaigarriak indargabetzen laguntzen du. Bi substantziok batera hartzeak, normalean, biak gehiago kontsumitzera darama, arriskuak ere handituz.




HEROINA + ALKOHOLA



HEROINA + ESTIMULATZAILEAK

Ez hartu baldin eta...



...gaixotasun mentalen bat baduzu.

...gibekeko, pankreako edo bihotzeko arazoak badituzu.

...sendagaiak hartzen ari bazara.

...haurdun bazaude edo bularra ematen ari bazara.

...arriskuko edo arreta handiko zer edo zer egin behar baduzu, esate baterako, gidatu egin behar baduzu.

...hazteko adinean bazaude.

Hartzea erabaki baduzu...

hartu baino lehen

Substantziaren berri jakitea komeni da, gozamen eta arriskuak jakin neurtzeko.



Informazioa eskuratzeko bide ona Ai Laket!! elkarteko programetara jotzea da. Substantziari berari buruzko informazioa emango dizugu, bai eta dosiari buruzkoa ere, printzipio aktiboaren kopurua, aizunketa...

Kontsumo planifikatzea da onena. Mugak ezarri, eta bete itzazu.

Tristurari, loezinari edo beheraldiei aurre egiteko behar duzun gogoan izan aise handitu daitezkeela haren kontsumoa, denbora gutxian mendetasuna sortuz.

Planifika eta neur itzazu aldeak kontrolatuz, kulparik sentitu ondorioak. Gogoan izan, errez gero, segundo gutxirean buruan nabaritzen direla ondorioak, oso biziak direla eta segundo gutxi irauten dutela.

hartu bitartean

Kalkula ezazu dosia, heroinaren arrisku handienetako bat gaindosia gertatzea da: koma-egoerara eraman zaitzake eta bihotzekoa eragin.


Erabili zure heriotza eta ez utzi beste inori. Hartara, gaixotasunak kutsatzeko arriskua murriztuko da (gripeak, C hepatitisak,...)

ez beste inori. Ez utzi beste inoren eskutan.


Zainetik sartzea da heroina hartzeko modurik arriskutsuena eta erasotzaileena. Erabilera segurua egiteko, galdetu ezazu zerbitzu hori ematen duten informazio-guneetan.

Txandakatu sudurzuloak, sudur-trenkada hainbeste ez kaltetzeko.

Goza ezazu zure kontsumoa kontrolatuz, kulparik sentitu gabe eta zure burua eta ingurunea errespetatuz.



Heroinaren eraginpean sexu harremanak badituzu, erektzioa izatea eta bi sexueta orgasmoa heltzea zailagoa izan daitezke. Erabili kondoiak haurdun ez gertatzeko eta sexu-transmisiozko gaixotasunak ez harrapatzeko (kandidak, herpesak, hepatitisak, GIB-hiesak eta abar). Kondoia erabiltzeko erantzukizuna zuri dagokizu,





hartu ondoren

Gogoratu kontsumo ondoren sudurzuloak garbitzen, itsatsitako hondarrak kentzeko.

Baliteke hurrengo egunean nekatuta eta suminkor egotea.

Gogoan izan heroina justifikaziorik gabe edukitzeak edo kalean hartzea 300 euro edo gehiago isun-zigorra dakarrela. Trafikatzeak, saltzeak edo banatzeak kartzela-zigorra dakar.



Ai laket!! irabazi-asmorik gabeko elkarte bat da eta legeztatutako gabeko drogen kontsumitzaile zein kontsumitzaile ohiek osatzen dugu. Ai laket!!-en, kontsumo arduratsuen ikuspuntutik eta erabilera eraginkor arriskuak autogestiozko ikuspuntutik, askotariko substantzia psikoaktiboekin bizitzen ikastearen aldeko apostua egiten dugu. "Drogak kontsumitu, bai ala ez" pertsona helduek informazioa jaso ondoren askatasunaz hartu beharreko erabakia dela uste dugu. Ai laket!!-en asmoa ez da erabaki horren gainean eragitea, baizik eta informazio zehatza, praktikoa eta sinesgarria ematea, hartara, kontsumitzaileek, erabakia ondo hausnartutakoa izan dadin eta kontsumitzaileek ahalik eta zentzutasun handienaz jokatuzko informazioa izan dezaten.